

udaltop

UDALETAKO  
EUSKARA  
ZERBITZUEN  
TOPAKETAK



IZENBURUA:

Euskararen erabilpena zerbitzu pu-  
blikoan: arauak eta praktikak

EGILEA:

Eneritz Zabaleta Apaolaza

DATA:

2015/04/29



## Aurkibidea

1. Hizkuntzen erabilpena zerbitzu publikoan: arauak .....	4
1.1 Frantsesaren erabilpen derrigorra.....	4
1.2 Hizkuntza eskubideen ukazioa .....	5
2. Tolerantziaren gris-beltzak .....	6
2.1 Kontziliazioaren mugak.....	6
2.2 Tolerantziaren ahuleziak.....	8
Konklusioa.....	10



## 1. Hizkuntzen erabilpena zerbitzu publikoan: arauak

Frantziar Estatuak zerbitzu publikoan hizkuntzen erabilpena arautzeko hartu dituen xedapenak, Estatuaren eraikuntza gidatu zuten hautu ideologikoetan oinarritzen dira. Aitzinako Erregimenean, hizkuntza subirautzari lotu zitzaion, eta subirautzaren jabeak, Erregeak, haren subirautzaren marka gisa ekin zion frantsesaren erabilpena unibertsalizatzeari. Erregearen hizkuntza frantsesa zenez, XVI. Mendetik aitzina, subirautzaren espresioa ziren ekintzetan frantsesaren erabilpena derrigortzeari ekin zion. Horrela gertatu zen, adibidez, 1539ko Villers-Cotterêts-eko ordenantzarekin. Ordenantza horrek, edo hobeki erranik, ordenantza horretaz egin zen irakurketak, justizia aktoetan frantsesaren erabilpena derrigortu zuen, ordura arte latina erabiltzen zelarik.

Hizkuntza eta subirautzaren arteko lotura hori ez zen eten 1789ko Iraultzarekin. Iraultzaileek, subirautzaren iturri berri bat definitu zuten: Erregearen ordeaz, Nazioa zen subirautzaren jabea. Ondorioz, frantsesa, Erregearen hizkuntza izatetik, Nazioaren hizkuntza izatera pasa zen. Frantses iraultzak, proiektu nazionalari erantsi zizkion oinarri ideologiko berberak aplikatu zizkion hizkuntzari. Nazio bat, bakar eta zatiezina eraikitzea zuen helburu Iraultzak, hiritarren unibertsalitate abstraktu baten bidez, norbanakoen arteko desberdintasun subjektiboak ezabatzen zituen. Hizkuntzaren arloan, hiritartasunaren unibertsaltasunarekin simetria, frantsesaren unibertsaltasun eta bakartasuna sustatu zuen. Eredu politiko hori, baina, zuzenbide konstituzional idatzitik kanpo gelditu zen luzaz. Gaur egun hizkuntzen erabilpena arautzen duten testu juridikoak 1990 hamarkadan onartu ziren. Xedapen konstituzional eta legislatibo horiek, modu batez, frantziar eredu politikoaren oinarri ideologikoak zuzenbidean zizelkatuta uzten dituzte. Bi dira, Frantziako zuzenbide modernoan, hizkuntzen erabilpenaren inguruko oinarri juridikoak. Alde batetik, eremu publikoan frantsesaren erabilpena derrigortzen du zuzenbideak (1.1). Beste alde batetik, frantsesa ez den beste hizkuntza bat erabiltzeko eskubideak ukatzen ditu, izan maila kolektiboan zein indibidualean (1.2).

### 1.1. Frantsesaren erabilpen derrigorra

Aipatutako oinarri ideologiko horiekin koherentzian, 1990 hamarkadan onartu ziren frantsesaren erabilpena arautzen zituzten xedapen konstituzional eta legislatiboak. Hala ere, zuzenbidea kontu horietaz isilik zegoenean, epaitegiek frantsesaren erabilpenaren aldeko hainbat erabaki hartu zituzten. XIX. Mendeko hainbat epai erabakitan, Kasazio Kor-teak justizia administrazioan frantsesaren erabilpena « *justiziaren administrazio onari modu garrantzitsuan eragiten dion zuzenbide publikoko oinarritzko printzipio* »<sup>1</sup> gisa definitu zuen. Ordena administrazioari dagokionez, Estatu Kontseiluak frantsesaren erabilpena « *ezaugarri orokorreko arau prozedimental* »<sup>2</sup> gisa definitu zuen, zerbitzu publikoekiko harremanetan eskualde hizkuntzetan idatzita zeuden hainbat dokumenturen balio nuloa dekretatuz.

<sup>1</sup> C. Cass 4/08/1859 *Giorgi c/ Masapino*, Recueil général des lois et des arrêts Sirey, 1860, 239 or.  
C. Cass 15/11/1875 *Renucci*, Recueil général des lois et des arrêts Sirey, 1875, 36-37 or.

<sup>2</sup> Cons. Etat 22/11/1985 *Quilleverre*, Recueil Lebon, 1985, 333 or.  
Cons. Etat 15/04/1992 *Le Duigou*, Recueil Lebon, 1992, 704 or.



Epai erabakiek definitutako frantsesaren erabilpenaren derrigortasun horrek beste dimentsio bat ezagutu zuen 1992ko ekainaren 25eko Konstituzioaren erreformarekin. Orduan, Maastricht-eko Itunaren berrespena zegoen jokoan, eta Itunaren xedapenak Konstituzioarekin bateragarri egiteko, botere konstituziogile deribatuak Konstituzioa aldatzea erabaki zuen. Erreforma horren bidez, garaiko 1. artikuluan, gaur egun 2. artikulua bihurtu dena, honako perpausa itsatsi zen: « *Errepublikaren hizkuntza frantsesa da* ». Xedapen konstituzional horrek frantses hizkuntzaren eta subirautasunaren arteko lotura baieztatzen du, artikulua « Subirautasunaz » izenburua duen Konstituzioaren lehen Kapituluaren sartuta dagoelako. 1992az geroztik, beraz, frantsesa Errepublikaren subirautasunaren adierazle bat izatera pasa da, letra konstituzionalaren arabera.

Erreforma konstituzional horrek garapen legislatiboa ezagutu zuen 1994ko abuztuaren 4ko « Toubon-Lamassoure » deituriko legearekin. Lege honek, xedapen konstituzionala zehaztu eta garatu zuen, frantsesa « irakaskuntzaren, lanaren, trukaketen eta zerbitzu publikoen » hizkuntza bihurtuz. Xedapen horrekin koherentzian, bizitza publikoaren hainbat esparrutan frantsesaren erabilpena derrigortu zuen 1994ko legeak. Ondorioz, bizitza publikoaren alor ugartan, frantsesaren erabilpena derrigorra bilakatu zen 1992 eta 1994az geroztik.

Konstituzio Kontseiluak, arau berri horietan oinarrituz, frantsesaren erabilpen derrigorra indartu zuen irakurketa plaza-ratu zuen. 1994ko<sup>3</sup>, 1996ko<sup>4</sup> eta 1999ko<sup>5</sup> hiru epai erabakitan finkatu zuen jurisprudenzia orokor baten arabera, Kontseiluak frantsesaren erabilpen derrigorren printzipio orokor bat ondorioztatu zuen. Horrela, Konstituzio Kontseiluaren arabera, frantsesaren erabilpena « *derrigorrezkoa da zuzenbide publikoko pertsona moralentzat, zerbitzu publiko bat burutzen duten zuzenbide pribatuko pertsona moralentzat* » bai eta, Polinesiako Autonomia estatutuaren kasuan, « *erabiltzaileentzat, administrazioarekin eta zerbitzu publikoekin daukaten harremanetan* ».

Epaileren irakurketa horrek, frantsesaren erabilpen derrigorri balio konstituzionala eman zion. Lehenago, zuzenbide publikoko oinarritzko printzipioa edo prozedurazko arau orokorra zena, obligazio konstituzionala bihurtzen da. Arau horrek, gainera, indar juridiko oso zabala dauka, bizitza publiko osoa hartzen duelako beregain, batik bat zerbitzu publiko osoa. Baldintza horietan, frantsesa ez den beste hizkuntza bat zerbitzu publikoan erabiltzea neurri oso handi batean mugatuta gelditzen da, Frantziako hierarkia normatiboaren eskala gorenean frantsesaren erabilpenaren derrigortasuna argi eta garbi proklamaturik gelditzen delako.

Frantsesaren erabilpen derrigorren printzipio juridiko horren ondoan, frantziar ordenamendu juridikoak beste oinarri juridiko handi bat dauka: frantsesa ez den beste hizkuntzetako hiztunen hizkuntza eskubideen ukazioa (1.2).

## 1.2. Hizkuntza eskubideen ukazioa

Frantsesaren erabilpen derrigorrak Konstituzioaren 2. artikulua baldin badauka oinarri, ez da guztiz kasu berdina hizkuntza eskubideen ukazioarekin. Eskubide horien ukazioa, hemen ere, epaileren ahotik iritsi da. Konstituzio Kontseiluak izan du debeku konstituzional hori zehazteko ardura. Eskubideen ukazioan bi motatako eskubideak bereizi behar dira. Eskubide kolektiboek dagokionez, frantziar Estatuko ideologia eta eredu politikoaren printzipio klasikoak mobilizatu ditu Konstituzio Kontseiluak. Eskubide indibidualak ukatzeko, berriz, Konstituzioaren 2. artikulua mobilizatu du.

<sup>3</sup> Cons. Const. 29/07/1994, Journal officiel de la République française, 1994, 11 392 or.

<sup>4</sup> Cons. Const. 09/04/1996, Journal officiel de la République française, 1996, 5 724 or.

<sup>5</sup> Cons. Const. 15/06/1999, Journal officiel de la République française, 1999, 8 964 or.



Eskubide kolektiboen ukazioa ezaugarritzeko, ezinbestekoa da Konstituzioaren 1. artikulura jotzea. Artikulu horrek, frantziar eredu politiko eta ideologikoaren oinarrian dauden printzipioak biltzen ditu, tartean hiritarren berdintasuna legearen aitzinean, Errepublikaren zatiezintasuna edo laizitatea. 1999ko epai erabakian, Konstituzio Kontseiluak Hizkuntza Gutxitu eta Eskualde Hizkuntzen Europako Itunak Konstituzioaren 1. artikulua urratzen zuela erabaki zuen. Zehatzago, Kontseiluak epaitu zuen euro-itunak frantses herriaren bakartasuna, hiritarren berdintasuna eta Errepublikaren zatiezintasuna urratzen zituela « hizkuntza, jatorrian, kulturaren edo sinesmenaren oinarritzen den komunitate bati frantsesa ez den hizkuntza bat erabiltzeko eskubidea » onartzen ziolako.

Erabaki horretara iritseo, Kontseiluak urrats desberdinetan oinarritutako arrazoinamendua eraiki zuen. Arrazoinamendu horretan argi ikus daiteke, Kontseiluaren arabera, batasuna dela berdintasunaren oinarria. Herriaren bakartasun printzipioa 1991ko epai erabaki batetik<sup>6</sup> ondorioztatu zuen. Kortsikar herriari egiten zitzaioen erreferentzia zentsuratzeko, Kontseiluak honakoa epaitu zuen: « *Konstituzioak bakarrik frantziar herria ezagutzen du, herritar frantses guztiek osatuta, erligio, arraza eta jatorri desberdintasun gabe* ». Xedapen horretara iritseo, Kontseiluak Errepublikaren zatiezintasuna hartu zuen abiapuntutzat. Errepublika zatiezina denez, herri bakar bat egon daiteke: frantsesa. Eta herriaren bakartasun horri, berdintasun printzipioa itsatsiz, berdintasunaren oinarri egiten du bakartasuna. Irakurketa horretan oinarrituz, ezinezkoa baldin bada hiritarraren eta herriaren artean inolako talderik juridikoki ezagutzea – eza-gupen horrek hiritarren berdintasuna urratuko lukeelako – ezinezkoa da talde horiei eskubideak onartzea. Bide horretatik, Frantziaren eredu politikoaren oinarrian dauden printzipioen irakurketa klasiko, unitarista eta unibertsalistaren bidez, Konstituzio Kontseiluak hizkuntza eskubide kolektiboen ezagutzari atea itxi zion.

Hizkuntza eskubide indibidualei dagokionez, 1999ko epai erabakian, Konstituzio Kontseiluak Konstituzioaren 2. artikulua hartu zuen oinarri gisa, eskubide horien ukazioa aldarrikatzeko. Kontseiluak honela ebatzi zuen: « *norbanakoek ezin dute, zerbitzu publikoekin eta administrazioarekin duten harremanetan, frantsesa ez den beste hizkuntza baten erabilerarako eskubiderik aldarrikatu* ». Konstituzio Kontseiluaren epai erabakiak esplizituki 2. artikulua hartu zuen oinarritzat, debeku hori azaleratzeko. Hala ere, hemen ere, modu gordeagoan baldin bada ere, berdintasun printzipioarekin konbinazio normatibo bat egin zuen Kontseiluak. Bereziki atera zen agerian lotura hori, 1991ko eta 1996ko epai erabakietan. Erabakiotan, Kontseiluak frantsesa ez den beste hizkuntza baten irakaskuntzak beti hautazkoa behar duela izan ebatzi zuen, horrela izan ezean, hiritarren berdintasuna hautsiko litzatekela argudiatuz. Norbanakoei hizkuntza eskubideak onartuz geroz ere, ondorio berberera iritsi gaitzke: legearen aitzinean hiritarren arteko berdintasuna urratuko litzateke, beti ere Kontseiluaren arabera, norbanako batzuk eskubide berezi batzuen jabe izanzen bailirateke. Honenbestez, norbanakoen hizkuntza eskubideek Konstituzioaren 2. artikulua ez ezik, berdintasun printzipioa ere urratzen dute.

Horiek hala, zerbitzu publikoan hizkuntzen erabilpena arautzen duen normatiba bereziki zurruna da frantsesa ez den beste hizkuntzekiko. Izan maila konstituzionalean, legislatiboan edo epaileen interpretazioan, frantsesaren erabilpen derrigorra arautzen da, eta beste hizkuntzetako hiztunek ezin dute hizkuntza eskubide indibidual zein kolektiborik aldarrikatu. Beste gisa batera erranda, Frantziako marko juridikoak frantsesaren erabilpen eskusibo eta derrigorra babesten du eremu publikoari dagokionez.

<sup>6</sup> Cons. Const. 09/05/1991, Journal officiel de la République française, 1991, 6 350 or.





Horrek ez du erran nahi euskararen erabilpenari ateak erabat itxita zaizkiola zerbitzu publikoan. Arau juridiko horiek beste arau batzuekin kontziliatu egin ditu Konstituzio Kontseiluak, zerbitzu publikoan euskararen erabilpenari ate batzuk irekiz. Ate horietaz gain, nolabaiteko tolerantzia baten bidez, atzeko atetik ere beste espazio batzuk ireki dira azken urteotan euskararen erabilpenaren mesederako.

## 2. Tolerantziaren gris-beltzak

Zerbitzu publikoan frantsesaren erabilpen elebakarrak araubide sendoa baldin badu ere, beste hizkuntzak erabiltzeko espazioak ez daude erabat itxita. Irekidura horiek, egokitze edo kontziliazio juridiko batetik lortu dira batetik. Baina, orohar ere, zuzenbidearen letratik kanpo, beste gisa bateko tolerantzia bat garatu da azken urteetan, hizkuntza politika koherente bat eraikitzeko ahulgune anitz dakartzana.

### 2.1. Kontziliazioaren mugak

Zerbitzu publikoan frantsesa ez den beste hizkuntza bati erabilpenerako tarteak irekitzerakoan, Konstituzio Kontseiluak Konstituzioaren 2. artikulua xedapenak 1789ko eskubideen deklarazioaren 11. artikuluaekin kontziliatu zuen. Zehazkiago, frantsesa Errepublikaren hizkuntza dela dioen xedapena, 1789ko deklarazioan bermatuta dagoen adierazpen eta komunikazio askatasun konstituzionalarekin kontziliatu zuen. Lehen urratsa, 1994ko epai erabakian eman bazuen ere, 1999ko erabakian ekin zion kontziliazioari.

Gisa horretan, Kontseiluak, frantsesaren erabilpen eksklusiboa lausotu zuen, adierazpen askatasunaren izenean. 1999ko epai erabakian, Kontseiluak gisa horretan zehaztu zuen lausotze hori: « *Konstituzioaren 2. artikulua ez du itzulpenen erabilpena debekatzen ; bere aplikazioak ez du eraman behar adierazpen eta komunikazio askatasunak irakaskuntzan, ikerketan eta ikus-entzunezko komunikazioan daukan garrantzia ahanztera* ». Horrenbestez, jurisprudentzia horretan oinarrituz, euskararen erabilpena, eremu publikoko honako espazioetan onartuta dago:

- itzulpenak erabiliz
- irakaskuntzan
- ikerkuntzan
- ikus-entzunezko komunikazioan

Kontziliazio honek hainbat ohar merezi ditu. Lehenik eta behin, Konstituzio Kontseiluak Konstituzioaren 2. artikuluaekin egin du bere egokitzapena. 1. artikuluko xedapenei ez die lausotzerik aplikatu. Honenbestez, hizkuntza eskubideen ukazioari ez dio eragiten kontziliazioak. Bigarrenik, Konstituzioaren 1. artikulua egokitzapenik ezagutzen ez duenez, euskararen erabilpenak baldintza batzuei erantzun behar die. Hiritarren berdintasuna ez urratzeko, euskararen erabilpenak ez du sekula derrigorra izan beharko, eta hipotesia guztietan hautazkoa izan beharko du. Horrela gertatzen da, adibidez, irakaskuntzan. Hautazkotasunarekin koherentzian, euskarazko gela elebidunak irekitzerakoan adostasun doublea eskatzen du marko juridikoak: ikasleek galdegin behar dute irakaskuntza hori jasotzea, eta ikastetxeko irakasle zein arduradunek ados egon behar dute irakaskuntza plantan emateko.

Hirugarrenik, euskararen erabilpenari irekitzen dizkion esparruek ere merezi dute komentariarik. Kasualitatea izan ala ez, Konstituzio Kontseiluak frantsesa ez beste hizkuntzen erabilpena onartzen dituen espazioak, aurrez legeak araututako esparruak dira. Hots, 1999ko epai erabakiaren aurretik, legez jadanik euskararen erabilpena baimenduta zeu-



kan. Horrez gain, azpimarragarria da ere zerrenda enumeratiboa egiten duela Konstituzio Kontseiluak. Modu esplizituan aipatzen ditu euskara erabil daitezken esparruak. Konztilazioak, honenbestez, izaera mugatua dauka. Erabilpenaren modalitateei dagokionez, hautazkotasuna inposatzen da. Erabilpenaren esparruei dagokionez, berriz, esplizituki definituta gelditzen dira.

Horiek hala, harrigarri suerta daiteke han eta hemen, Konstituzioan gisa bateko tolerantzia orokor bat definitzen dutenak, eremu publikoan frantsesaren ondoan beste hizkuntzak erabiltzea onartzen duena, esplizituki inolako testu juridikotan oinarritzen ez bada ere.

## 2.2. Tolerantziaren ahuleziak

Marko juridikoaren azterketak argi erakusten du eremu publikoan frantsesaren erabilpen elebakarra indarrez proklamatu dagoela, gainerako hizkuntzetako hiztunen eskubideak ukatuak direlarik. Aldi berean, eremu publikoan beste hizkuntzak erabiltzeko aukerak mugatuta agertzen dira, izan esparruetan zein modalitateetan.

Elementu horiek kontuan hartuta, harrigarria suerta daiteke hainbat autorek, Konstituzioan oinarrituz kontzeptualizatu duten tolerantzia orokorra. Autore horien arabera<sup>7</sup>, Konstituzioak tolerantzia orokor bat baimentzen du, zeinaren arabera eremu publikoan frantsesa ez den beste hizkuntza bat erabil daiteken. Are gehiago, erabilpen hori baimendua izan dadin, baldintza batzuk ere finkatzen dituzte autore horiek :

- erabiltzailea eta zerbitzu publikoko langilea ados egon behar dira
- erabilpenak interes orokorreko helburu bati erantzun behar dio

Tolerantzia konstituzionalaren teorizazio saiakera horrek ez du oinarri handirik, Konstituzioaren letrara mugatzen bagara, ez eta epai erabakiek eman dituzten erabakiak kontuan hartzen baditugu ere. Aitzitik, egia da praktika administratibo eta politikoa, gisa horretako tolerantzia existitzen dela. Tolerantzia horren oinarriak Konstituzioan bilatzea nekeza bada ere, praktikaren nolabaiteko berme teoriko gisa har daiteke autore horiek definitutako tolerantzia konstituzionala.

Gaur egun, hainbat autoritate administratibok, zerbitzu publikoan frantsesa ez den beste hizkuntza baten erabilpena onartzen edo, hobeki erranik, toleratzen dute. Tolerantzia inplizitu eta orokor horrek, eskualde eta garaien arabera, hedadura handiagoa ala txikiagoa izan dezake. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, euskararen alde plantan eman den hizkuntza politikaren oinarrian egon da. 2006an Euskararen Erakunde Publikoak definitu zuen Hizkuntza Politika Proiektuan<sup>8</sup> hauteman daiteke oinarri hori. Hala, proiektuaren aitzin-solasak horrela zehazten du: « *Indarrean dagoen araudiak, dauden aukerak definitzen ditu, eta gisa horretan hizkuntza politika proiektua mugitzen den koadroa finkatzen* ».

Zerbitzu publikoan euskararen erabilpena sustatzeko helburua duten hainbat ataletan ere, hautazkotasunaren printzipioa oinarritzat hartzen du hizkuntza politika proiektuak. 8. lan ardatzan, adibidez, euskararen tokia bizitza sozian garatzeko asmoz, euskararen presentzia zerbitzu publikoetan sustatzea hartzen du zeregin gisa, horretarako partaidetzak bultzatuz. Irakaskuntzan eta lehen haurtzaroen ere, euskarazko eskaintza garatzeko, gurasoen eta profesionalen hautu librearen errespetua finkatzen du zehar lerro gisa.

<sup>7</sup> BERTILE, Véronique, *Langues régionales ou minoritaires et Constitution*, Bruxelles, Bruylant, 2008, 516 or.

MELIN-SOUCRAMANIEN, Ferdinand. « Le statut des langues régionales ou minoritaires: la "tolérance constitutionnelle" française », in LE POURHIET, Anne-Marie (Dir.). *Langue(s) et constitution(s)*. Paris: PUAM y Economica, 2004, 225-235 or.

SCHOETL, Jean-Éric. « Langue française ». *Actualité juridique de droit administratif* [Paris: Dalloz], n°7 (1999), 573-579 or.

<sup>8</sup> Hizkuntza Politika Proiektua, Euskararen Erakunde Publikoa: [http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Documents\\_OPLB/Hizkuntza\\_Politika\\_Proiektua/2006\\_eep\\_oplb\\_hizkuntza\\_politika\\_proiektua.pdf](http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Documents_OPLB/Hizkuntza_Politika_Proiektua/2006_eep_oplb_hizkuntza_politika_proiektua.pdf)



Hori hala izanik, azpimarratu behar da tolerantzia orokor horrek juridikoki dituen ahuleziak. Lehenik eta behin, praktikan tolerantzia hori aplikatzeko zailtasunak agerikoak dira. Ez da batere erraza, eremu publikoan frantsesaren erabilpen derrigorra hain azkaraki proklamatu denean (Konstituzioan, legean eta jurisprudenzian), beste hizkuntza baten erabilpena aldarrikatzea, aukera hori zuzenbidean espreski agertzen ez den tolerantzia inplizitu batean oinarritzen denean. Nolabaiteko desoreka bat sortzen da marko juridikoari dagokionean, eta zerbitzu publikoan euskara erabiltzeko aukera eskatzerakoan, oinarri gisa har daitekeen testu falta oso trabagarria da.

Inplizituak sortzen dituen arazoez harago, Zuzenbide Estatuaren ikuspegitik ere, bereziki kritikagarria da tolerantzia horren existentzia. Autoritate administratiboek, erraterako, askatasun eta diskrezio osoa daukate, eremu publikoan fantsesa ez den beste hizkuntza baten erabilpena onartu ala errefusatzeko. Inolako argudiorik eman beharrik gabe, denboran zehar praktika batzuk onartu ala errefusatu ditzazkete. Eskala hierarkikoaren arabera ere, maila lokalean onartua den praktika bat, eskualde mailan errefusatu izan daiteke, frantsesaren derrigortasuna aldarrikatzen duen marko juridikoan babesturik. Administrazioak, ohiko zuzenbidetik harago doan botere diskrezionario bat dauka.

Horrela, ez da batere bitxia auzapez batek ezkontza bat euskaraz ospa dadin onartzea, eta ondoko herriko auzapezak aukera hori errefusatzea, inolako fundamentu juridikorik eman beharrik gabe. Zerbitzu publiko batzuetan ere, zuzendari berri bakoitzak bere irizpide linguistikoak finka ditzazke. Zuzendari batek, bere zerbitzuan euskararen erabilpena onartuko duenean, haren ordezkioak egun batetik bestera aukera horiek ezeztatu ditzazke.

Ez da bitxia ere, administrazio berak, lurralde batean fantsesa ez den hizkuntza baten erabilpena onartzea, eta beste lurralde batean erabilpen hori errefusatzea. Adibidez, posta zerbitzuan Nanteseko posta zuzendariak, helbideak bretoienez idatzirik zituzten gutunak garraiatzea errefusatu ahal izan zuen, beste eskualde batzuetan euskaraz edo kortsikeraz idatzitako gutunak garraiatuak direnean. Pireneo Atlantikoetan bertan, Baionako Familia Kutzak euskarazko haurtzaindegi elebidunak diruztatzea onartzen badu ere, Paueko Kutzak okzitanerazko haurtzaindegi elebidunak finantzatzea errefusa dezake.

Egoera horrek bereziki hauskor egiten du tolerantzia printzipioa. Autoritate administratiboek ere neurritz kanpoko boterea ematen die. Zuzenbide Estatu batean, administrazioaren erabaki eta botereek legalitate printzipioa errespetatu behar dute eta, aldi oro, administrazio batek botere bat erabiltzerakoan, oinarri legal bat izan behar du. Kasu honetan, fantsesa ez den beste hizkuntza baten erabilpena inolako argudio eta oinarri juridikorik gabe onartu dezake, eta ez du inolako azalpenik eman behar, erabilera hori errefusatzea deliberatzen badu. Botere diskrezionario horrek, botere arbitrariotik du gehiago, legalitate printzipioan oinarritzen den administrazioaren botere mugatutik baino.

Baldintza horietan, ugariak dira euskararen aldeko hizkuntza politikaren eta autoritate administratiboaren arteko talkak. Zerbitzu publikoaren hainbat arlotan, euskararen erabilpena sustatzea du helburu hizkuntza politika proiektuak. Neurri zenbait praktikara emateko orduan, baina, hainbat tentsio gune izan ditu, autoritate administratiboekin. Irakaskuntzaren kasuan, murgiltze pedagogia eskola publikoetara zabaltzea da helburuetako bat. Alta, Estatu Kontseiluak 2002ko epai erabaki batean<sup>9</sup>, murgiltze ikastetxeak eskola publikotik kanpo egon behar zirela epaitu zuen « eskualde hizkuntza ezagutzeko beharretatik harago » zihoazela epaituz, eta fantsesa irakaskuntzaren hizkuntza dela dion xedapen legislatiboak onartzen dituen salbuespenak baino urrunago zihoazelako. Parisko Familia Kutzak ere bere kezka adierazi du euskara hutsean funtzionatzen duten haurtzaindegiekiko. Bi kasu horietan, hizkuntza politika aplikatu ahal izateko, esperimentazio protokolo bitartez bideratu dira Euskararen Erakunde Publikoaren eta kompetentzia den administrazioaren arteko hitzarmenak.

Beste kasu batean, autoritate administratibo batzuek haien errefusa eman dute, euskara zerbitzu publiko batzuetan erabiltzeko hitzarmenen aurrean. Prefetak, adibidez, Baionako Hospitalearekin edo Postarekin izenpetzekoak ziren

<sup>9</sup> Cons. Etat, 29/11/2002 *Snees, Unsa eta beste*. Recueil Lebon, 2002, 415 or.





hitzarmen bana blokeatu zituen 2013an, haren errefusa adieraziz. Estatuko zerbitzu publikoetan, euskararen presentzia garatzea zaildu dute errefusa horiek, autoritate administratiboek euskararen erabilpena onartzeko ala errefusatzeko daukaten erabateko boterea azpimarratuz. Botere horrek, beraz, zaila bihurtzen du Hizkuntza Politika Proiektuan agertzen diren helburuak betetzea, euskararen erabilpena zerbitzu publikoan autoritate administratiboen onarpen ala ezetzaren eskuetan utziz.

Azkenik, tolerantzia horrek ere bere ahulezia juridikoa agerian utzi du, hainbat kasu epaitegietara iritsi direnean. Konstituzio Kontseiluak baimentzen dituen eremuetatik kanpo, frantsesa ez den beste hizkuntza baten erabilpena auzitara iritsi denean, epaileak beti egin du frantsesaren erabilpenaren alde. Horrela gertatuta du justizia administrazioan, posta administrazioan, bai eta zerbitzu pribatu batzuetan, hots, bankugintzan. Konstituzio Kontseiluak onartutako esparruetan ere, segurtasun juridiko txikia egon da. Egoera zibilan adibidez, jurisprudentziak izenetan frantsesez erabiltzen ez diren azentu edo keinu diakritikoen erabilpena debekatu du – *í* edo *ñ* letretan adibidez<sup>10</sup>. Frantziako Gobernuak ere<sup>11</sup>, familia liburuetan elebitasuna erabiltzeko irizpide batzuk zehaztu ditu. Konstituzio Kontseiluak itzulpenak egitea baimendu arren, Gobernuak iriztu du familia liburuetan, frantsesezko bertsio elebakarra erabili behar dela, eta beste hizkuntza bateko itzulpena jasotzen duen bigarren familia liburu bat osatzeko aukera zehaztu du. Soporte berean, beraz, ezin da familia liburu elebidunik egin. Eremu publikoan frantsesa ez den beste hizkuntza bat erabiltzeko, beraz, oinarri juridiko ahulak dira nagusi, eta autoritate administratiboek tolerantzia politikak, hauskortasuna eta inseguritate juridikoa sortzen dute, askotan.

## Konklusioa

---

Hizkuntzen erabilpenak zerbitzu publikoan oso marko juridiko argia dauka frantziar Estatuan. Alde batetik, frantsesaren erabilpena derrigor bihurtu dute hainbat testu konstituzional, legislatibo eta epai erabakik. Bestalde, frantsesa ez den beste hizkuntzetako hiztunen eskubideak ukatuak dira, izan arlo indibidualean zein kolektiboan. Frantsesaren erabilpena derrigor eta elebakar horren ondoan, oso nekeza da beste hizkuntzek espresio bideak topatzea zerbitzu publikoan. Konstituzio Kontseiluak, printzipio horien lausotze mugatu bat egin du, adierazpen eta komunikazio askatasunaren izenean. Horrela, irakaskuntzan, ikerkuntzan, ikus-entzunezko komunikazioan eta itzulpenen bidez, euskara eta beste hizkuntzen erabilpena onartuta dago. Onarpen horrek, baina, baldintza batzuk jarraitu behar ditu, hautazkotasuna baldintza nagusia izanik.

Koadro horretatik kanpo, autoritate administratiboek halamoduko tolerantzia bat daukate zerbitzu publikoan beste hizkuntzen erabilpenari dagokionez. Baina tolerantzia horren hauskortasun eta aldakortasunak ez du beharrezko bermerik ematen, euskararen erabilpena sustatu nahi duen hizkuntza politika bat plantan emateko. Horrenbestez, argi ikusten da maila juridikoan aldaketen beharra dagoela, zerbitzu publikoan euskararen erabilpena modu indartsuan eta juridikoki seguruan bermatu eta sustatu nahi bada.

---

<sup>10</sup> Cour Appel Montpellier, 26/11/2001 *Baylac*.

<sup>11</sup> Paul Molac diputatuaren galderari erantzuna, Journal officiel de la République française, Débats, 05/03/2013, 2612 or.



## Bibliografia

- ARLETTAZ**, Jordane. *L'État-Nation à l'épreuve de la constitutionnalisation des langues régionales*, Paris, Mare et Martin, 2015, 582 p.
- AVRIL**, Pierre. *Les conventions de la Constitution*, Paris, Presses universitaires de France, coll. Léviathan, 1997, 208 p.
- BENOIT-ROHMER** Florence. « Les langues officieuses de la France ». *Revue française de droit constitutionnel* [Paris: Presses universitaires de France], n°45 (2001).
- BERTILE**, Véronique, *Langues régionales ou minoritaires et Constitution*, Bruxelles, Bruylant, 2008, 516 p.
- BLANC**, Agnès, *La langue de la République est le français*, Paris, l'Harmattan, 2014, 485 p.
- BLANC**, Agnès. *La langue du Roi est le français*, Paris, l'Harmattan, 2010, 640 p.
- BODIN**, Jean. *Les six livres de la République*, Paris. Edición de 1583 reeditada en **FREMONT**, Michel; **COUZINET**, Marie-Dominique; **ROCHAIS**, Henri. *Les six livres de la République, un abrégé de l'édition de Paris de 1583*, Paris, Le livre de poche, 1993, 607 p.
- CHICOT**, Pierre-Yves. « L'article 75-1 de la Constitution et la notion de patrimoine linguistique ». *La semaine juridique – Administration et collectivités territoriales* [Paris:LexisNexis], n°9 (2011), p. 22-27.
- COLLOT**, Pierre-Alain. « La décentralisation culturelle ». *Revue du droit public et de la science politique* [Paris: Librairie générale de droit et de jurisprudence] n°2 (2008), p.335.
- DEBBASCH**, Roland. « La reconnaissance constitutionnelle de la langue française ». *Revue française de droit constitutionnel* [Paris: Presses universitaires de France], n°11 (1992).
- FILIPETTI**, Aurélie. *Les langues de France*, Paris, Dalloz, 2014, 180 p.
- GREGOIRE**, Henri-Baptiste, *Rapport sur la nécessité et les moyens d'anéantir les patois et d'universaliser la langue française*, para consultar el informe: **DE CERTEAU**, Michel; **REVEL**, Jacques; **JULIA**, Dominique. *Une politique de la langue: la Révolution française et les patois, l'enquête Grégoire*, Paris, Gallimard, 2002 (2. Ed.), 472 p.
- HAURIOU**, Maurice. « La souveraineté nationale », **LAROSE**, Louis; **TENIN**, Lionel. *Études constitutionnelles*, Paris, 1912, 156 p.
- LAFON**, Jacques. « Langue et pouvoir: Aux origines de l'exception culturelle française », *Revue historique* [Paris, Presses universitaires de France], 1994, n° 592, p. 393-412.
- LAVIALLE**, Christian. « Du nominalisme juridique. Le nouvel article 75-1 de la Constitution du 4 octobre 1958 ». *Revue française de droit administratif* [Paris: Dalloz] n°3 (2008), p. 1110-1115.
- MELIN-SOUCRAMANIEN**, Ferdinand. « Le statut des langues régionales ou minoritaires: la "tolérance constitutionnelle" française ». **LE POURHIET**, Anne-Marie (Dir.). *Langue(s) et constitution(s)*. Paris: PUAM y Economica, 2004, p. 225-235.
- MOUTOUH**, Hugues. « La République face à ses communautés ». *Revista de llengua i dret*[Barcelona: Generalitat de Catalunya. Escola d'Administració Pública], n° 35 (2001) p. 89-100.
- PONTIER**, Jean-Marie. « La décentralisation culturelle et la loi du 13 août 2004 ». *Revue française de droit administratif* [Paris: Dalloz], julio-agosto 2005, p. 697.
- ROBLLOT-TROIZIER**, Agnès. « L'impact de la révision constitutionnelle sur les droits et libertés ». *Actualité juridique de droit administratif* [Paris: Dalloz], n°34 (2008), p. 1866-1876.
- ROSANVALLON**, Pierre. *L'État en France de 1789 à nos jours*, Paris, Le Seuil, coll. L'Univers historique, 1990, 369 p.
- SCHOETL**, Jean-Éric. « Langue française ». *Actualité juridique de droit administratif* [Paris: Dalloz], n°7 (1999), p. 573-579.
- SIEYES**, Emmanuel-Joseph. *Qu'est-ce que le Tiers-état ?*, Paris, Presses Universitaires de France, 2001 (Rééd.), coll. Quadrige, 93 p.
- VERPEAUX**, Michel. « La révision constitutionnelle à l'arrachée ». *La semaine juridique – édition générale* [Paris:LexisNexis] n°31-35 (2008), p. 170-178.
- VIGUIER**, Jacques. « La primauté juridique de la langue nationale française sur les langues régionales secondes ». *Revue du droit public et de la science politique* [Paris: Librairie générale de droit et de jurisprudence] n°6 (2009), p. 1635-1648.
- WOEHLING**, Jean-Marie. « Histoire du droit des langues de France », p.71-88. in **KREMNITZ**, Georges. *Histoire sociale des langues de France*, Paris, Presses Universitaires de France (2013), 905 p.
- WOEHLING**, Jean-Marie. « Le droit constitutionnel français à l'épreuve des langues régionales ». *Revista de llengua i dret*[Barcelona: Generalitat de Catalunya. Escola d'Administració Pública], n° 35 (2001) p. 79-85.